


# GUGGENHEIM BILBAO

Prentsarako txostena

## FRANCIS BACON

PICASSOTIK VELÁZQUEZERA

2016·9·30/2017·1·8



Atsegin handia da niretzat Francis Baconi buruzko Guggenheim Bilbao Museoaren atzera begirakoaren katalogoa aurkeztea, XX. mendeko ezinbesteko artistetako bat baita. *Francis Bacon: Picassotik Velázquezera* erakusketan Baconen margolanen aukeraketa harrigarria dago, sei hamarkada hartzen dituena, eta horrez gain artistarengan aztarna handiena utzitako espainiar eta frantses maisu batzuen lanak ere badaude. Erakusketa honek agerian uzten du tradizioak Baconentzat zeukan garrantzia, eta egilearen sormenerako joeraren gakoak ulertzeko modua ematen du. Bere obraren bitartez, Baconek modernotasuna hezurramitzen eta bere garaiko gizakiaren larritasuna adierazi zuen arren, aldi berean, maisu handiek utzitako oinordetza bere egin eta jarraitu zuen modu ausart eta anbiziotsuan, bere garaiko kultura erreferentziak gehituz.

Giza irudia da haren konposizio gehienen muina eta, haietan, gizabanakoaren ikuspegi existentzialista eta gordina erakusten du. Baconek modu biziki adierazkorrean jasotzen zuen, benetakotasun handiz, bizirik egotea, bere dimentsio osoan eta ondorio guztietarako. Biziaren misterioa atzeman nahi zuen, eta errealitatea funtsera murriztu, sintetizatu, hura materia piktorikoan mamituz.

Iberdrolak jatorri irlandarreko artista britainiarrari buruzko erakusketa hau egiteko eman duen laguntza Guggenheim Bilbao Museoarekin daramagun lankidetzan estuan oinarritzen da, baita gauden lurraldeetako arte eta kulturaren hedakuntzarekiko dugun konpromisoan ere.

Zoriondu egin nahi ditut Francis Baconen margolan aukeraketa zoragarri zabal eta adierazgarri hau biltzeko lan egin duten pertsona guztiak. Iberdrolarentzat oso pozgarria da, bere kultura babesle lanean, artista paregabe honen obra ezagutzeko modua ematen digun proiektu hau gorpuzten laguntzea.

**Ignacio S. Galan**  
**Iberdrolako presidentea**

## *Francis Bacon: Picassotik Velázquezera*

- Noiz: 2016ko irailak 30–2017ko urtarrilak 8
  - Guggenheim Bilbao Museoak antolatutako erakusketa, Grimaldi Forum Monaco-rekin lankidetzan
  - Komisarioa: Martin Harrison
  - Iberdrolak babestuta
- 
- **Erretratuak, giza irudi biluziak, paisaiak, tauromakia... Erakusketak Baconen obrari buruzko ikuspegi berri bat erakusten du, bere artean frantses eta espainiar kulturak utzitako aztarna nabarmenduz.**
  - **Baconek irudien unibertso bat sortu zuen literaturatik, zinematik, artetik eta bere bizitzatik abiatuz, lengoia guztiz berezi baten bitartez, giza zaurgarritasuna gordintasun handiz adierazteko.**
  - **Baconen irudi biluzietan pertsonaia bakartiak nagusitzen dira eguneroko jarreretan; pintoreak modu basatian haien gorputzak bihurrituz eraldatu zituen eta, hartara, erretratu berrasmatu zuen.**
  - **Bacon urratzailea izan zen bere bizitza eta obrarekiko, eta ordu arte hausteko zailak ziren muga batzuk gainditu zituen, eta gizakia haren burua gordinki eta bortizki beha zezakeen ispilu batean kokatu zuen.**

Guggenheim Bilbao Museoak *Francis Bacon: Picassotik Velázquezera* aurkezten du, 80 artelan inguruko erakusketa bat. Irlandan jaiotako britainiar artista honen gutxien erakutsitako margolan adierazgarrienetako batzuk biltzen ditu, baita bere artista ibilbidean aztarna handia utzitako frantses eta espainiar kulturako maisu klasikoen artelanak ere. Bacon urratzailea izan zen bere bizitza eta obrarekiko, eta ordu arte hausteko zailak ziren muga batzuk gainditu zituen, eta gizakia haren burua gordinki eta bortizki beha zezakeen ispilu batean kokatu zuen.

Francis Bacon frantsesazale amorratua zen. Literatura frantsesaren irakurle gogotsua zen, Racine, Balzac, Baudelaire eta Proust bezalako idazleak, eta biziki maite zuen Frantzia finkatutako Picasso eta Van Gogh-en artea, baita haien aurreko beste pintore batzuk ere, hala nola, Degas, Manet, Gauguin, Seurat eta Matisse; Baconek Frantzia eta Monakoko printzerria bisitatu eta han bizi izan zen hainbat aldiz. Nerabea zela, Chantillytik gertu, Nicolas Poussin-en *Errugabeen sarraskia* deskubritu zuen (1628–1629) eta, 1927an, Picassoren obra ikusita, txundituta geratu zen Parisen Paul Rosenberg galerian *Cent dessins par Picasso* erakusketa bisitatu zuenean; izan ere, harrezkero, pintore-lanetan hasia erabaki zuen. 1946an Londres utzi eta Monakora joan zen, eta han bizi izan zen bere ibilbide artistikoko hiru urte erabakigarritan, baita hara maiztasunez itzuli ere 1990 arte. Baconek Pariseko 1971n Grand Palaisen egin zioten atzera begirakoa jo zuen beti bere

ibilbidearen gailurtzat, bere bizitzako une tragikoenetako batean gertatu zen arren (bere bikotekidearen heriotza) eta lehen Londresen atzera begirako garrantzitsuak egin arren. Gainera, bere bizitzan, Francis Bacon Frantziako hiriburuarekin bere harremana estutzen joan zen, bere paristar adiskideen erretratuek eta 1985 arte Le Maraisen estudio bat eduki izanak agerian uzten duten bezala.

Espainiar kulturak Baconen baitan izandako eraginari dagokionez, Picassoren obrarekin 1920ko eta 1930eko hamarkadetan izandako kontaktuaz gain, obsesioak jota zegoen 1650ean Velázquezek pintatutako Inozentzio X.a aita santuaren erretratuarekin, eta haren inguruan 50 artelanetik gora egitera heldu zen. Bitxia bada ere, Francis Baconek inoiz ez zuen ikusi Erromako Doria Pamphili galerian dagoen Velázquezen mihise hori; izan ere, 1954an Italiaren hiriburuan bisitan zela ikusteko aukera izan zuenean, nahiago izan zuen bere gogoan erreprodukzioak izatea jatorrizko koadroa baino. Velázquezek gain, espainiar pinturaren beste klasiko batzuekin ere liluratu zen, adibidez, Zurbarán, Greco eta Goya. Azken hau, bestalde, Museo del Prado luze eta zabal miretsi ahal izan zuen, eta eskatu ere egin zuen hil baino urte batzuk lehenago bakarrik bisitatu ahal izatea, 1990ean Velázquezen obrari buruz antolatutako atzera begirako erakusketa ikusi ostean. Francis Bacon Madrileko bisita labur batean hil zen 1992an eta, Espainian bizileku egonkor bat inoiz izan ez zuen arren, Malagan egonaldi luze batzuk egin zituen, baita bisitak ere Sevilla, Utrera eta Madrilera.

### **Ibilaldi bat erakusketan barrena**

#### **205. aretoa. Picasso: arterako atea**

“Picassok sistema berri horien guztien atea ireki zuen. Ni, berriz, saiatu naiz oinaz ate ireki hori trabatzen, atea itxi ez zedin. Picasso maisuen leinu batekoa da, Rembrandt, Michelangelo, Van Gogh eta, batez ere, Velázquez bezala”. Francis Bacon.

Francis Bacon XX. mende hasierako Irlanda aztoratuko landetan finkatutako britainiar familia aberats batean sortu zen eta, hamazazpi urte baino ez zituela, Pablo Picassoren obraren aurrez aurre izan zen Pariseko Paul Rosenberg galerian. Horrek, Baconek aitortu zuen bezala, guztiz baldintzatu zuen haren ibilbide artistikoaren hasiera; hala erakusten dute bere lehenengo artelan batzuek, adibidez, *Konposizioa (Giza irudia)*, 1933koa: argi eta garbi egiten dio erreferentzia malagar artistaren 1920ko hamarkadako artelanei eta, bereziki, *Aldagelak* sortari, non giltza bat heltzen duten bainulari itxuragabe batzuk agertzen diren; objektu horrek Picassoren interesa piztu zuen, eta Bacon ere liluratu.

Inolako prestakuntza teknikorik gabe, Bacon artearen munduan sartu zen, baina luze gabe barneratu zuen bere hurbileko sortzaile batzuek, adibidez, Roy de Maistre-k, eman ziezaioketen teknika. Iraun duten garai honetako mihise urriek (Baconek eskastzat jo zituen gehienak, eta suntsitu) Kubismo Analitiko eta Sintetikoaren eragin goiztiarra erakusten dute, baita Picassoren Surrealismo biomorfikoarena ere; hortik abiatuta, Baconek lengoia propio bat garatu zuen. Irudikatze era hori 1933an identifikatu zen lehenengoz, Herbert Read kritikariak Baconen

*Gurutziltzaketa* (1933) toki bikain batean atera zuenean, Picassoren *Bainulariak* (1929) lanaren parean, bere *Art Now: An Introduction to the Theory of Modern Painting and Sculpture* argitalpenean. Baconek bere ibilbide artistikoaren hasieran, oso gaztea zela, adituek aipatu zuten arren, ez zuen zorte berdina izan hurrengo urteetan.

### 206. aretoa. Gizakientzako kaiolak

“Nik irudia kontzentratzen duten laukizuzen horietan pintatuz murrizten dut mihisearen eskala. Besterik gabe, hobeto ikusteko”. Francis Bacon.

Bigarren Mundu Gerraren ondoren (Francis Baconek zerbitzu zibilean parte hartu zuen asma kronikoa zuelako), kritikak eta jendeak berriz aitortu zuten artistaren obra, eta Erica Brausen galeria-jabearen arreta ere piztu zuen; azken honek haren lana Europako askotariko herrialdetan jarri zuen erakusgai. 1948an, New Yorkeko Arte Modernoko Museoak Baconen lehenengo artelana erosi zion Brauseni.

Aldi horretan, Baconek irudien unibertso berri bat sortu zuen literaturatik, zinematik, artetik eta bere bizitzatik abiatuz, lengoia guztiz berezi baten bitartez eta giza zaurgarritasuna gordintasan handiz adierazteko. Pertsonaia horiek itxura berezia dute, gizaki eta animalien artekoa, Eadweard Muybridge-ren argazki batzuetan bezala, eta karioletan edo kubotan itxita eta harrapatuta agertzen hasten dira. Baconek bitarteko hori erabiltzen zuen ikusleak giza irudiei errepara diezaien. Lausoak eta desitxuratuak dira irudiak, zirriborro modukoak, trazu gris eta urdinetara murriztuak; bereziki Greco ekartzen dute gogora, baita Alberto Giacomettiren marrazkiak ere, Baconek goretsitakoak, haren eskulturak baino gehiago. Gainera, omenaldia egin zion etapa honetan Vincent van Goghi: pintzelkada solteaz eta kolore-sorta piztu batez ekarri zuen gogora, beste mihise batzuetako giza irudi ilunen kontrako aldean. Bacon liluratuta zegoen Van Goghekin, arauetatik eta errealitate hutsetik urruntzen baitzen adierazkortasunaren mesedetan.

### 207. aretoa. Giza irudi bakanak

“Nik inoiz egindako erretratu onenetakotzat neukan, horregatik, eta obsesionatzen ninduen. Velázquezen aita santua ilustrazio hori daukaten liburuak behin eta berriz erosten ditut, asaldatzen nauelako eta, nire baitan, era guztietako sentimenduak eta, esan dezadan, irudimenaren alde batzuk pizten dituelako”. Francis Bacon.

Francis Baconek *Inozentzio X.a aita santuaren erretratu* deskubritu zuen hainbat erreproduzioen bitartez 1950eko hamarkadaren erdialdera. Diego Velázquez 1650eko margolan bat da, eta asaldatuta zeukan Bacon, baita beste margolari eta idazle ingeles batzuk ere. Baconek mihise horrekin zuen zaletasuna bi hamarkada baino gehiagotan islatu zen haren hamarnaka artelanetan. Horietan, aita santuaren irudia askotariko modutan itxuraldatzen da. Batzuetan, hura eta Potemkim korazatuan garrasika ari den inude zaurituaren aurpegi aztoratuaren sufrimendua tartekatu egiten dira. Sergei Eisensteinen film hori, hain zuzen, hamasei urte zituela deskubritu zuen Baconek Berlinen. Beste batzuetan, giza irudia, hil dituzten abereen zatiz inguratuta dago, bielorrusiar jatorriko Chaïm Soutine artista frantsesa gogora ekarriz argi eta garbi. Bestetan, berriz, Inozentzio X.aren irudia Pio XII.arenari gainjartzen zaio —Bigarren Mundu

Gerran aita santu izan zen eta oraindik ere hizpide da Alemania naziarekin izan zuen harreman diplomatikoa—.

Velázquezek hierarkia identifikatzeko lagunduko duen testuingururik gabeko aita santua irudikatu zuen, bakarrik, Kristo gurutzean sakrifikatu zutenean bezala. Gurutziltzatzea Baconek hasieratik behin eta berriz erabili zuen gaitzat, erlijio konnotazioak alde batera utzi arren eta, betiere, giza kondizioaren alderdi ilunena nabarmentzeko asmoz. *Aita santuak* bezala, *Gurutziltzaketak* eraldaketak izaten joaten dira, koloreak, formatua edo konposizioa aldatzen, eta artistaren oso gogoko beste erreferentzia batzuekin tartekatzen, adibidez, Picassoren obra edo Eskiloren *Orestida*.

### 209. aretoa. Gorputzak agerian

“Nire ustez, artea bizitzako obsesio bat da eta, horrenbestez, gizakiak garenez, gure obsesio handiena gu geu gara”. Francis Bacon.

Iraun duen Francis Baconen lehen biluzia 1949koa da. Mihiseak gizon bat erakusten du bizkarrez, eta bere atzealdean toles batzuk ditu, errezelak balira bezala. Bizkarrezurra nabarmentzen da, animalia baten saihetsen antzeko itxura duena, eta Degas-en *Bainuaren ondoren, emakumea bere burua lehortzen* (ca. 1890—95) margolanean agertzen den giza irudia gogorarazten du, Baconek oso miresten zuen artelana.

Lau urte geroago, artistak gizon biluzien bikote bat margotu zuen lehenengo aldiz, baina irudi hori ezin zen jendaurrean erakutsi, artean homosexualitatea zigortu egiten baitzen Ingalaterran. Baconen biluzietan, batez ere 1962ko *Gurutziltzaketa baterako hiru estudioen* ondoren egindakoetan (margolan hori une goren bat izan zen bere ibilbide artistikoan), pertsonaiak bakarrik agertzen dira nagusiki, eguneroko jarreretan, eta pintoreak itxuraldatu egin zituen ia ezinezko irudiak eman zezaten, haien gorputzak ia animalien gisara bihurtuz. Artista erretratua berrasmatzen saiatzen ari zen. Kasu batzuetan, pertsonaia biluzien sexua anbigua da; beste batzuetan, berriz, oso agerikoa.

Baconek miretsi egiten zuen Rodinen obra, eta haren eskulturen irudiak zeuzkan, eta haren giza irudiez oharrak hartzen zituen. Hemen erakusten den prestaketarako brontzea Rodinek egin zuen James Abbott McNeill Whistler-en omenez. Areto honetako Whistler-en eta John Singer-en artelanek Espainiako arteak britainiar pinturan zeukan eragina uzten dute agerian, batzuetan Baconek Eduardo erregearen Ingalaterrako maisu handien iragazkitik jaso zuen oinordetza.

Baconen mihise hauek Eadweard Muybridge-ren argazkietan oinarritzen dira eta, batzuetan, baita John Deakin-en argazki-irudietan ere, pintorearen mandatuz egindakoak. Horietan, haren adiskideak erakusten dira, baita artean ere identifikatu gabeko jatorria duten pertsonaia ezezagunak ere.

Indar handiko biluzi horietan, Baconek giza irudi protagonista bakarrik irudikatu ohi zuen. Ia inoiz ez zuen lan egiten erretratatzeko duenaren aurrean, aginduz Deakinek ekarritako argazkietan

oinarrituz baizik: Baconek oso jarraibide zehatzak ematen zizkion pertsonaiek hartu beharreko jarrerai buruz; artearen historiako artelan batzuen jarrerak eta Muybridge-ren beste irudi batzuenak hartzen zituen kontuan.

### 203. aretoa. Elkarrekin, baina bakartuta

“Nire ustez, hainbat giza irudi agertzen diren momentutik, giza irudien arteko harremanen alde narratiboan sartzen zara automatikoki. Horrek, berehala, istorio moduko bat sortzen du. Hala ere, oraindik ez dut galdu istoriorik gabeko giza irudi asko dituen koadro bat egiteko esperantza”.

Francis Bacon

Aretoa honetan Diego Velázquezek Sebastián de Morrari egindako erretratu ikus dezakegu. Pertsonaia hori ere inguru osotik bananduta adierazi zuen, eta bere janzkera aberatsak Austriako etxean zeukan posizioa ematen du aditzera. Horrelako pertsonaiek, tartan Inonenzio X.ena aita santuak, lilurazten zuten Bacon: Velázquezek horiek irudikatzeke zuen maisutasunaz gain, misterio kutsua baitzerien. Sevillako pintorearen lana berrinterpretatu zuen bere ikuspegitik eta hartara Velázquezen lana aztertzeke gure modua aldatu zuen.

Gune honetan, halaber, John Phillip-en *La Bomba* dago erakusgai. Artista eskoziar hori, osasun-arrazoiak tarteko, Espainia hegoaldean bizi izan zen XIX. mende erdialdean. Horrek aztarna handia utzi zuen pintorearen baitan, eta “Phillip espainiarra” ere deitza heldu ziren, haren obran, besteak beste, Velázquez eta Murillo maisuek utzitako marka dela eta. *La Bomba* —izenburuak eszena kostunbrista hau gertatzen den lokala ematen du aditzera, Granadan ere koka daitekeena— Londresen aurkeztu zuen Phillipek eta arrakasta handia izan zuen; garaiko artista britainiar askoren inspirazio-iturri bihurtu zen. Margolan honetako pertsonaiek elkarreagin adiskidetsu bat dute, Baconen giza irudiek ez bezala, azken hauek elkarrekin borrokatu edo sexu-harremanak izan behar dituztela baitirudi, aretoa honen erdigunea betetzen duen triptiko handiak, *Ohean dauden giza irudietarako hiru estudio* (1972) margolanak, erakusten duen bezala.

Triptikoaren hiru panelek atzealde berdina dute, eta eszena berdina irudikatzen dute, haren elementuek kasu bakoitzean aldaketa txikiak izan dituzten arren. Baconek, uste denez, 33 bider erabili zuen hiru zatiko formatu hori bere ibilbide artistikoan, hiru hamarkadatan, eta artistari irudiak nahita zatikatuta erakusteko balio zion, marko bereizietan antolatuta. Triptikora jotzeaz gain, Baconek hiru eszenako konposizioa mihise bakarreko margolanetan biltzeko ideia sartu zuen, adibidez, *Giza gorputzaren estudioak* margolanean (1975).

### 202. aretoa. Erretratu baten indarra

“Jakina, batek belarriak eta begiak bezalako gauzak sartzen ditu. Hala ere, horiek albait modu irrazionalenean sartu nahiko lituzke, eta irrazionaltasun horren arrazoi bakarra da, hura agertzen gero, irudiaren indarra askoz irmotasun handiagoz dakarrela, besterik gabe eseri eta plantak eginez baino...”. Francis Bacon.

Pertsonaia ezagun baten bere lehen erretratu egin zuen Baconek 1951n: Lucian Freud pintore britainiarrarena. Zutik irudikatu zuen, itzal baten kontra jarrita. Urtetan, miresten zituen lagun eta

pertsonak irudikatu zituen, adibidez, Freud bera, Michel Leiris, Henrietta Moraes, Jacques Dupin, George Dyer, John Edwards edo Reinhard Hassert eta Eddy Batache, besteak beste. Baconen erretratu gutxi batzuk baino ez ziren mandatuak izan: Baconek berak hautatzen zituen ia beti, eta bidaltzen zizkioten argazkiak hartzen zituen margolanerako oinarri.

Hainbat alditan, koadro horiek hondo urdinkara dute, eta bat datoz Baconen estudioaren kolorearekin. Hain zuzen, bertan atera zituzten horietako argazki batzuk. Beste batzuetan, berriz, hondoa beltza da, eta espainiar maisu handien artea ekartzen du gogora. Artelan batzuek beste tonu batzuk dituzte, adibidez, kadmio laranja, formatu handiagoko sorkuntzetarako. Baconek ez zuen erretratatuaren itxura fisiko hutsa islatzen: haiekin zuen harremanaren berri ematen ere saiatzen zen, baita lotura horrek nolako azterna uzten zion. Ez dira erretratu psikologikoak, giza harremanen irudikapenak baizik.

Bere pinturretan, Baconek pertsonak desitxuratzen zituen era naturalistagoan irudikatuko balitu baino errealagoak egiteko. Leirisi egindako bi erretratuetatik, Baconek errealistagotzat jotzen zuen literaltasunetik urrutien dagoena. 1970eko hamarkadan, bere artelanetarako modelorik gabe zela, autorretratu ugari egiten hasi zen. 1971tik 1979ra hogeita bederatzi pintatu zituen guztira, horietatik hamabost bakarkakoak eta formatu txikian. Tarte horretan, Baconek nazioarteko ospe handia hartu zuen. 1971n, Pariseko Grand Palaisek, Picassoren ondoren, atzera begirako bat eskaini zion lehenengo artista bizia bihurtu zen eta, 1988an, Sobietar Batasunean erakusketa bat izandako Mendebaldeko lehen artista.

#### **204. aretoa. Tauromakia**

“Lorcaren poema ospetsu batean oinarritzen da, ‘Arratsaldeko bostetan’ bertso-lerroa behin eta berriz errepikatzen duen hura. Hiltzen den toreatzaile bati buruzko poema polit eta luzea da. Aspaldi ez dudala zezenketa bat ikusten, hiruzpalau baino ez ditut ikusi bizitza osoan, baina bat ikustean, buruan geratzen da erantsita betiko”. Francis Bacon

Baconek elkarrizketa ugaritan agertu zuen gustuko zituela zezenketak eta Francisco Goya miresten zuela. Hain zuzen, komisario-lanetan, Baconek espainiar maisuaren *Don Andrés del Peral* margolana aukeratu ere egin zuen 1985ean Londreseko National Galleryko funtsetan oinarritutako erakusketa baterako. Goyak prestaketako 50 marrazki egin zituen klarion gorritz bere Tauromakiarako eta, bertan, akuaforte, ur-tinta, punta lehor eta gubil grabatua erabili zituen. Serie horretako gai nagusia zezenketen bilakaera bada ere, gaiari buruzko Goyaren jarrerak eztabaida interesgarria piztu du oraindik orain arte-historialarien artean.

#### **208. aretoa. Bizi funtsa**

“Hori da artistaren pribilegioa, denboraz gaindikoa izatea. Pasioak gazte mantentzen zaitu, eta pasioa zein askatasuna ez al dira liluragarriak alajaina! Pintatzen dudanean, ez dut adinik. Pintatzeko plazera edo zailtasuna sentitzen dut bakarrik”. Francis Bacon.

1970eko hamarkadaren amaieran eta 1980koaren hasieran, Francis Baconek, ordurako 70 urtetik gora zituela, bere sorkuntzetan bigarren mailan utzitako motiboak (adibidez, zezena) eta generoak



(adibidez, paisaia) sartu zituen artelanetan. 1978 baino lehen, urriak dira paisaiak, eta gehienak 1940 eta 1950eko hamarkadetan egin zituen; sarritan, horietan gizakiak eta animaliak agertzen dira. Bizitzaren azken etapan, bere obra sinplifikatu egin zen; paisaiako elementuak testuingurutik bakartu zituen, eta artistak zehaztutako mugetan sartu. Era horretan, Baconek giza irudia tratatzeko baliatzen zuen antzeko moduan heltzen zion paisaiari: *Martxoko pintura* margolanean (1985) agertzen den olatua “atzeman” egiten du, baita errepidea ere *Kaleko eszena (auto bat urrutian)* koadroan.

Azkenaldi honetako erretratuak gero eta soilagoak dira. Aurretik txertatutako elementuak kentzera ere heldu zen, konposizioaren ikusizko erreferentziak murrizteko eta giza irudi nagusira arreta eramateko. Artelan horietako batzuk aerosol pinturaz egin zituen eta, era horretan, Baconek ordu arte bere lanean erabili gabeko ehundurak sortu zituen. Mihise horiek bitan banatzen dira: kolore kementsuz egindakoak eta batez ere tonu grisak zein motelak erakusten dituztenak.

Zezena berriz agertu zen azken urte horietan. Bere ikonografiak Goya eta Picasso bezalako artistak ematen ditu aditzera, baina baita Federico García Lorca poeta eta Michel Leiris idazlea eta, zehazki, zezenketei egiten die erreferentzia.

Francis Bacon Madrilen hil zen 1992an, Museo del Pradoetik ez oso urruti. Bertan zeuden hark miretsitako maisu handi asko, eta, azkeneko aldiz, 1991n joan zen hara Velázquez-en obra behatu ahal izateko.

## DIDAKTIKA

BBKk babestutako Didaktika proiektuan kokatuta, Museoak espazio didaktikoak eta jarduera bereziak diseinatu ditu, erakusketa bakoitzaren osagarri. Gainera, horiek tresnak zein baliabideak jartzen dituzte erakusgai jarritako artelanak miretsi eta ulertzeko .

Oraingoan, Francis Baconi buruzko espazio didaktikoa korridorean eta 201. galerian kokatzen da, eta artistari buruzko eduki batzuk aurkezten ditu, *Energiaz gainezka* deitua. Bada, horien artean 3D esperientzia da aipagarriena, egokierarako espresuki ekoitzia, eta artistak Londreseko Reece Mewsen zuen estudioa birtualki bisitatzeko modua ematen duena.

Bestalde, jarduera didaktikoen artean, ondorengoak dira nabarmentzekoak:

- Solasaldia: Francis Bacon  
Martin Harrison erakusketaren komisarioak eta Lucía Agirre Guggenheim Bilbao Museoko kuratzaileak Francis Baconen obra aztertuko dute, artistaren erakusketa eta berriki katalogo arazoitua argitaratu dela aitzakia hartuta.  
Irailak 28, asteazkena, 18:30
- Hitzaldia: Bacon eta 7 Reece Mewseko bere estudioa  
Barbara Dawson Dublingo Hugh Lane Galleryko zuzendaria da. Galeria horretan, Francis Baconen estudioa zorrozki berregin dute, eta Dawsonek estudioaren sekretuak argituko ditu.  
Urriak 5, asteazkena, 18:30

### Partekatutako hausnarketak

Museoak Museoaren profesionalek zuzendutako bi bisita paregabe eskaintzen ditu Francis Baconen erakusketa deskubritzeko, muntaketaren zirrikituen eta beste bitxikeria batzuen bitartez, Fundación Vizcaína Aguirrereren diru-babesaz.

- Arte arduradunen ikuspegia: Lucia Agirrek zuzenduta, Guggenheim Bilbao Museoko arte-arduraduna.  
Urriak 19, asteazkena.
- Funtsezko kontzeptuak: Marta Arzak Guggenheim Bilbao Museoaren Hezkuntza eta Interpretazio Zuzendariordeak zuzenduta.  
Urriak 26, asteazkena.

### Baconen inguruko zinema zikloa. *From his Life to his Work*

Museoko Entzungen, fikziozko zein dokumental pelikulen aukeraketa bat izango da artistaren obrari buruz: haren eta XX. mendearen bigarren erdiko Londresen bizitza erakusten dute, edo bere artelanen bati erreferentzia zuzena egiten diote.

Azaroaren 4tik 6ra.

### Katalogoa

Katalogoak ibilaldi bat egiten du erakusketako artelan guztietan barrena eta, hartara, irakurleak Francis Baconen irudiak ikusi ahal izango ditu lehengo zein egungo maisuenekin batera, espainiar zein frantsesak batez ere. Liburuak artistaren kronologia bat dauka, baita Martin Harrison, Manuela B. Mena eta Sarah Whitfielden testuak ere, eta britainiar pintorearen ekoizpenaren alderdi ezezagunei buruzko argibideak ematen dituzte.

### Komisarioa

Martin Harrison oraindik orain argitaratutako artistaren katalogo arrazoituaren argitaratzailea da. XIX eta XX. mendeko artearen inguruko beste argitalpen batzuen egilea da, bereziki argazkilaritzaz, eta hainbat erakusketaren komisario-lanetan aritu da sona handiko Erresuma Batuko erakusketa eta erakundeetan, adibidez, Victoria & Albert Museum, National Portrait Gallery eta Ashmolean Museum, baita Italia, Estatu Batuak eta Mexikon ere. 2006an, komisarioetako bat izan zen Francis Baconi buruzko Kunstsammlung Nordrhein-Westfalen-eko erakusketan (Dusseldorf) eta, 2013an, *Francis Bacon / Henry Moore: Flesh and Bone* delakoan, Oxfordeko Ashmolean Museumean, Richard Calvocoressirekin elkarlanean. Francis Baconi buruzko bere lehen saiakera 1999an argitaratu zen, eta *In Camera: Francis Bacon – Photography, film and the practice of painting* (Thames & Hudson, 2005) lanaren egilea da. Gainera, Rebecca Danielsekin batera, *Francis Bacon: Incunabula* (Thames & Hudson, 2008) egin du. 2009an, artistaren jaiotzaren mendeurrena ospatzeko, *Francis Bacon – New Studies: Centenary Essays* argitaratu zuen, bederatzi saiakera originalen bilduma bat, eta bere ibilbide luzean argitalpen ospetsuetan ere idatzi du, adibidez, *The Art Newspaper* eta *The Burlington Magazine*, baita Christie's, Sotheby's eta Philips de Pury enkante-etxe ospetsuen Londres, Paris eta New Yorkeko egoitzen katalogoetarako ere.

**Azalerako irudia**

Francis Bacon

*Michel Leirisen erretratua (Portrait of Michel Leiris), 1976*

Olio-pintura mihise gainean

34 x 29 cm

Centre Pompidou, Paris – Musée national d'art moderne.

Centre de création industrielle, Louise eta Michel Leirisen dohaintza, 1984

© The Estate of Francis Bacon. Eskubide guztiak jabetunak dira. DACS/VEGAP, Bilbo, 2016

Argazkia © Centre Pompidou, MNAM-CCI, Dist. RMN-Grand Palais / Bertrand Prévost

**Argibideetarako:**

Guggenheim Bilbao Museoa

Komunikazio eta Marketin Saila

Tel.: +34 944 359 008

[media@guggenheim-bilbao.es](mailto:media@guggenheim-bilbao.es)

Guggenheim Bilbao Museoari buruzko informazio guztia [www.guggenheim-bilbao.es](http://www.guggenheim-bilbao.es) duzu eskueran (prentsa-eremua).

## ARTISTAREN BIOGRAFIA

### 1910eko hamarkada

Francis Bacon Dublinen jaio zen 1909ko urriaren 28an. Irlandan bizi zen baina han inolako sustrairik ez zuen familia ingeles bateko bost anai-arreben artean bigarrena izan zen. Irlandako independentzia gerran (1919–1921) eta Gerra Zibilean (1922–23) gatazka asko egon ziren baserri giroan eta lurjabe protestanteek pairatu zituzten bereziki horien ondorioak.

### 1920ko hamarkada

Baconek Berlinen izan zuen ordura arteko kultura-bizipen zirrargarriena. Han ikusi zuen ziur asko Sergei Ensesteinek 1925ean zuzendu zuen *Potemkin korazatua*, hamarkada asko igaro ondoren filmak Bacon gaztearengan izan zuen eragina azaleratu zen haren lanean.

Ondoren Frantziara joan zen bizitzera eta bertan ikusi zuen Nicolas Poussin margolariaren Errugabeen sarraskia (ca. 1628–29) Château de Chantilly-n dagoen Musée Condé-n. Koadro horretan amak, etsi-etsian, bere haurtxoa babesteko garrasika dago. Eragin handia izan zuen Baconengan; izan ere, haren ustez, “giza garrasia ondoen irudikatzen duen koadroa da hori”. Aurrerantzean ere Baconek beste artista batzuen irudiak behin eta berriz erabili zituen obsesiboki haren lanean.

Parisko Galerie Paul Rosenberg-en Picassoren marrazkien erakusketa bat ikusi zuen 1927ko udan eta horren ondorioz artean buru belarri aritzea otu zitzaion. Marrazkiak eta akuarelak egiteari ekin zion haren kabuz, gidaritzarik gabe. Montparnasseko hotel batean bizi zen orduan eta erraz zeukan Picabia, De Chirico edo Soutine bezalako artisten erakusketetara eta filmen estreinaldietara joatea.

### 1930eko hamarkada

Londresen lehen olio-pinturak egin zituen. Roy de Maistre artista australiar postkubista izan zuen gidari; azaleko trebakuntza teknikoa eman zion esperientziarik gabeko artistari. Lehen mezenasetako bat Eric Hall izan zen; gizon diruduna zen, ezkonduakoa, eta Baconekin harreman intimoa izan zuen 15 urtez baino gehiagoz.

Baconek lehen lan guztiz orijinala egin zuen 1933an: *Gurutziltzaketa (Crucifixion)*. Koadro txikia zen, mamu-itxurako giroa zeriona, eta Picassoren biomorfismoaren eragin argia zuena. Herbert Read-en *Art Now* liburuan agertu zen haren irudia eta Sir Michael Sadler bildumatzaileak erosi zuen.

1936ko udan ez zituzten Baconen lanak onartu Londresko Nazioarteko Erakusketa Surrealistan, ez baitziren “nahikoa surrealistak”.

Garai honetako lanik ia ez da geratzen. Artistak suntsitu zituen gehienak: “zuzenketa” modu hori behin eta berriro baliatu zuen ibilbidearen zati handi batean, bereziki, hasieran.

### 1940ko hamarkada

Bacon liluratuta zegoen T. S. Eliot-en olerkiekin eta egile horren *The Family Reunion* antzezlanak beste ideia iturri are emankor batera eraman zuen: Eskiloren *Orestiada*. Hainbat pinturatan islatu zuen azken horren eragina.

1943. urtearen amaieran, Bacon kale mailako etxe batera aldatu zen, Cromwell Place kaleko 7. zenbakian, South Kensington auzoan. Etxe hori antzina John Everett Millais pintore prerrafaelitarena izen zen. Bertan amaitu zuen nazioarteko ospea eman zion artelana: *Gurutziltzaketa baten oinarriko irudi baten estudioa* (*Three Studies for Figures at the Base of a Crucifixion*, 1944). New Bond Street-eko Lefevre Gallery-n ikusgai izan zen 1945eko apirilean eta ikusleen eta kritikarien jakin-mina piztu zuen. Hurrengo urtean *Pintura* (*Painting*, 1946) egin zuen, asmo handiko lana; lehenengo Erica Brausen arte-merkatariak erosi zuen, eta, ondoren, 1948an, New Yorkeko Museum of Modern Art-ek. 12 urtez Bacon Brausen Hanover Gallery-rekin egin zuen lan.

*Burua, I* (*Head I*, 1948) lana, grisez eta beltzez margotua, ondorengo aukerari bikaina izan zen —artistak arin egin behar zuen lan—: ordutik aurrera mihisearen alde “okerrean” margotu zuen Baconek, hots, inprimaziorik ez zuen aldean; izan ere, ohartu zen gogoko zuela bertan margotzea, emaitza zorrotzagoa baitzen, testua gehiago ematen baitzion lanari eta pintura geruza finagoak xurgatzen baitzituen mihiseak. Teknika hori modu hobe ezinean egokitzen zen artistaren izaerara eta betirako baliatu zuen.

1949an Baconen erakusketa bat antolatu zuen Hanover Galleryk. Aurkeztutako lanen artean *Burua, VI* (*Head VI*, 1949) nabarmendu zen —kapa sentsual morea zela eta—, Velázquezen *Inozentzio X.ena aita santuaren erretratua* (1650) lanaren bariazio bat. Baconek maisulan horren kopiak baino ez zituen begiratu, baina 1950eko hamarkadan gai hori behin eta berriz jorratu zuen, modu obsesiboan; 1960ko hamarkadan ere aldiro-aldi horretan lan egin zuen. *Burua, VI* lanaren beste iturri bat izan zen *Potemkin korazatua* filmean oihuka egiten duen emakumea.

### 1950eko hamarkada

1951n eta 1952an berriro ere Hegoafrikara joan zen itsasontziz Bacon, herrialde horretan bizi baitzen ama aitaren heriotzaz geroztik. Belar luzeen artean mugitzen ziren animalia basatiek liluratu zuten eta eragindako zirrara hori 1952ko hainbat margolanetan jaso zuen. 1951n, Ingalaterrara itzultzeko bidean, Kairotik igaro zen eta hainbat egun eman zituen bertan; Baconek oso miresten zuen egiptoar artea eta ezerk ez zuela gairitu ere esan zuen. 1953 eta 1954 artean esfinge handian oinarritutako lau lan pintatu zituen; horrez gain, trajea zeramaten gizonak ere margotu zituen, ingurune ilun eta zirriborrotsuetan.

Baconek biluziak modu argiago batean adierazten hasi zen: *Bi irudi* (*Two figures*) lanetako poseak egiteko Eadweard Muybridge-ren *Giza irudia mugimenduan* (*The Human Figure in Motion*, 1901) lana hartu zuen abiapuntutzat. Artistak baina, bere egin zituen irudiok: eraldatu eta sexualtasuna agerian jarri zuen.

1954an Veneziako Bienalaren Britainiar Pabilioian erakutsi zituen lanak, Ben Nicholson eta Lucian Freud artistekin batera. Erroman egon zen eta ez zuen Velázquezen *Inozentzio X.ena aita santua* lana ikusi izan nahi.

New Yorken lehen bakarkako erakusketa egin zuen 1953an, Durlacher Brother galerian; Parisen 1957an egin zuen, Galerie Rive Droite galerian.

1950eko hamarkada ia osoan, Bacon Peter Lacyrekin —antzinako RAF pilotu bat— harreman asaldatua izan zuen, eta Lacyren sadismo neurotikoa pe izan zen. Lacyk Tangerrera alde egin zuenean, Baconek jarraitu egin zion, eta, 1956an, Marokorako bidean, lehen aldiz bisitatu zuen Museo del Prado.

1957rako, Baconek pintatzeko teknika aldatu zuen, bai eta kolorea emateko modua. Van Gogh-k eragindako lanak egin zituen; horrez gain, inspirazio-iturri izan zituen Chaim Soutine-k Céret-en egindako pinturak eta Marokoko argi distiratsuak. Lan horiek guztiz apurtzen dute 1950ko hamarkada hasierako sorgindutako irudiekin eta atzealde ilunekin; apurketa hori betirako izan zen. 1958ko urrian Marlborough Fine Art-ekin kontratu bat sinatu zuen.

### 1960ko hamarkada

1961ean, Reece Mews kaleko 7. zenbakiko etxe batera aldatu zen, antzinako orgategi batera. South Kensington auzoan zegoen, Cromwell kaleko antzinako estudiotik oso gertu. Estudio berria bizitzako gune garrantzitsuena bihurtu zen: lehen eskala handiko triptikoa egin zuen, *Gurutziltzaketa baterako hiru estudio* (*Three Studies for a crucifixion*, 1962). Hurrengo hiru hamarkadetan erabili zuen formatu hori, gai handienak irudikatzeko. 1962ko maiatzean, *Gurutziltzaketa baterako hiru estudio* Tate Gallery museoko atzera begirako erakusketa handi baten izan zen ikusgai; inaugurazioan telegrama bidez jakinarazi zioten Lacy zendu zela Tangerangren. 1963an *Paisaia, Malabatatik hurbil, Tanger* (*Landscape near Malabata, Tangier*) margotu zuen, lan ilun eta anbigua, Lacy lurperatuta zegoen lekuaren omenez.

1963. urtearen amaieran, George Dyer azaldu zen Baconen bizitzan eta hamarkada horretako pintoretako gaietako bat bihurtu zen. Argazkiak berebizikoak bilakatu ziren: erretratututakoen bizitasuna jaso zezakeen, baina tartea gorde zezakeen. John Deakin-ek Dyerri eta lagun hurbilei ateratako argazkiak erabili zituen batez ere.

Alberto Giacometti miresten zuen Baconek, bizirik zegoen eta miresten zuen artista bakarretako bat; hala ere, haren marrazkiak soilik goraiatzen zituen. Hainbat alditan ikusi ziren 1965ean, Giacomettik Tate museoan atzera begirako bat prestatzen zuen bitartean; bien arteko laguntasuna eten egin zen hurrengo urtean Giacometti hil zenean.

### 1970eko hamarkada

1971n Dyer hil egin zen, alkohol eta barbituriko gaindosia hartu ondoren; Baconek bi egun geroago Parisko Grand Palais-en atzera begirakoa ireki zuen —ohore handia bizirik zegoen artista batentzat—. Baconek dolu mingarria hainbat pinturatan islatu zuen.

Hamarkada honetan Parisen egonaldi luzeak egin zituen artistak. Bertan estudio bat izan zuen 1975etik aurrera. 1976an Michel Leiris idazle eta kritikari surrealistaren erretratu txiki bat egin zuen, zolia eta zorrotza; Baconen artelanik onenetakoa izan zen.

1970eko hamarkadaren erdialdera, John Edwards ezagutu zuen, Londresko East End auzoko gazte xarmagarria; bien arteko harremana aita eta semearena modukoa izan zen.

1978an lehen erakusketa izan zuen Espainian, Fundación Juan March-en (Madril) eta Fundació Joan Miró-n (Bartzelona).

### **1980ko hamarkada**

Mundu guztian aurkeztu ziren Baconen erakusketak, bakarkakoak zein atzera begirakoak, bestea beste, Tokion, Kioton eta Nagoyan 1983an eta Washingtonen 1989an. 1985ean Londresko Tate Gallery-n erakusketa handia zuela eta, erakunde horretako zuzendariak Baconi buruz honakoa esan zuen: "bizirik dagoen artistarik handiena da". Hiru urte geroago Sobietar Batasunak erakusketa bat eskaini zion Baconi: Mendebaldeko lehen artista izan zen.

Bacon berriz ere paisaiak egiten hasi zen —1957an alde batera utzi zituen, Van Gogh-en oinarritutako lanak egin ondoren 1957— eta lengoaia piktorikoa sinplifikatu zuen; oinarri-oinarrizko elementuak baino ez zituen gorde.

### **1990eko hamarkada**

Bizitzako azken urteetan, osasun txarra izan arren, Baconek harreman kartsua izan zuen 1987an ezagututako espainiar gazte jantzi batekin. 1990ean Museo del Padron Velázquez-en atzera begirakoa ikusi zuen. 1992an ez zien medikuaren aholkuei jaramonik egin eta Madrila itzuli zen; heldu eta egun batzuetara larri gaixotu zen eta ospitaleratu zuten. Bertan zendu zen apirilaren 28an, bihotzekoak emanda.

Prentsa irudiak  
**Francis Bacon: Picassotik Velazquezera**  
Guggenheim Bilbao Museoa

**Prentsarako irudiak eskuratzeko sareko zerbitzua**

Museoaren webguneko prentsa eremuan ([prensa.guggenheim-bilbao.es/eu](http://prensa.guggenheim-bilbao.es/eu)) izena eman dezakezu erakusketen eta eraikinaren inguruko bereizmen handiko irudi eta bideoak deskargatzeko. Oraindik konturik ez baduzu, eman hemen izena. Erabiltzailea baldin bazara, sartu zuzenean hemen erabiltzaile-izena eta pasahitza.

Prentsan erabiltzera bideratutako irudiek ondorengo zehaztapenak bete behar dituzte:

- Erakusketari buruzko artikuluetan bakarrik erabil daitezke.
- Osotasunean erreproduzitu behar dira, mozketarik, gainjartzerik edo manipulaziorik gabe.
- Ezin dira erabili portadetan edo promozioetarako lege-eskubidearen jabearen berariazko baimenik gabe

Argibide gehiagorako, jarri harremanetan Guggenheim Bilbao Museoaren Prentsa Arloarekin: telefonoz, +34 944 35 90 08, edo posta elektronikoki bidez, [media@guggenheim-bilbao.es](mailto:media@guggenheim-bilbao.es)

**Francis Bacon**

*Konposizioa (Giza irudia) [Composition (Figure)], 1933*


Pastela, luma eta tinta paper gainean, kartoi gainean muntatua

53,5 x 40 cm

Colección Abelló, Madril

© The Estate of Francis Bacon. Eskubide guztiak jabedunak dira.

DACS/VEGAP, Bilbo, 2016



**Francis Bacon**

'Amorrua' ('Fury'), 1944 inguru

Olio-pintura eta pastela konglomeratu gainean

94 x 74 cm

Bilduma pribatua

© The Estate of Francis Bacon. Eskubide guztiak jabedunak dira.

DACS/VEGAP, Bilbo, 2016

Argazkia: Prudence Cuming Associates Ltd.



**Francis Bacon**

'Velázquez araberako estudioa' ('Study after Velazquez'), 1950

Olio-pintura mihise gainean

198 x 137 cm

Bilduma pribatua

© The Estate of Francis Bacon. Eskubide guztiak jabedunak dira.

DACS/VEGAP, Bilbo, 2016

Argazkia: Prudence Cuming Associates Ltd.





### Francis Bacon

*Gurutziltzaketa baterako hiru estudio (Three Studies for a Crucifixion)*, 1962

Olio-pintura mihise gainean, triptikoa

198,1 x 144,8 cm, bakoitza

Solomon R. Guggenheim Museum, New York, 64.1700

© The Estate of Francis Bacon. Eskubide guztiak jabedunak dira DACS/VEGAP, Bilbo, 2016



### Francis Bacon

*Ohean dauden giza irudietarako hiru estudio (Three Studies of Figures on Beds)*, 1972

Olio-pintura eta pastela mihise gainean

Hiru panel, 198 x 147,5 cm bakoitza

Esther Grether Family Collection

© The Estate of Francis Bacon. Eskubide guztiak jabedunak dira. DACS/VEGAP. Bilbo, 2016

Argazkia: Bildpunkt AG, Münchenstein



### Francis Bacon

*Autorretraturako estudioa (Study for Self-Portrait)*, 1976

Olio-pintura eta pastela mihise gainean

198 x 147,5 cm

Art Gallery of New South Wales, 1978an eskuratua

© The Estate of Francis Bacon. Eskubide guztiak jabedunak dira. DACS/VEGAP, Bilbo, 2016

Argazkia: © Jenni Carter, Viscopy



### Francis Bacon

*Michel Leirisen erretratu (Portrait of Michel Leiris)*, 1976

Olio-pintura mihise gainean

34 x 29 cm

Centre Pompidou, Paris – Musée national d'art moderne.

Centre de création industrielle, Louise eta Michel Leirisen dohaintza, 1984

© The Estate of Francis Bacon. Eskubide guztiak jabedunak dira. DACS/VEGAP, Bilbo, 2016

Argazkia © Centre Pompidou, MNAM-CCI, Dist. RMN-Grand Palais / Bertrand Prévost



### Francis Bacon

*Autorretraturako estudioa (Study for Self-Portrait)*, 1981

Olio-pintura, pastela eta letresetara mihise gainean

198 x 147,5 cm

Bilduma pribatua

© The Estate of Francis Bacon. Eskubide guztiak jabedunak dira. DACS/VEGAP, Bilbo, 2016

Argazkia: Prudence Cuming Associates Ltd.



**Francis Bacon**

*Zezen baten estudioa (Study of a Bull)*, 1991

Olio-pintura, aerosol pintura eta hautsa mihise gainean

198 x 147,5 cm

Bilduma pribatua, Londres

© The Estate of Francis Bacon. Eskubide guztiak jabedunak dira.

DACS/VEGAP, Bilbo, 2016

Argazkia: Prudence Cuming Associates Ltd.

**Greco**

*San Francisco otoitzean Gurutziltzatuaren aurrean*, 1585 inguru

Olio-pintura mihise gainean

105,5 x 147,5 cm

Arte Eder Museoa, Bilbo

**Diego Velázquez**

*Primo bufoia*, 1644

Olio-pintura mihise gainean

106,5 x 147,5 cm

Museo Nacional del Prado, Madril

**Pablo Picasso**

*Konposizioa (Emakumezko irudia hondartzan)* [*Composition (Figure féminine sur une plage)*], 1927

Olio-pintura mihise gainean

18,8 x 147,5 cm

Bilduma pribatua

© Sucesión Pablo Picasso, VEGAP, Madril 2016

**Alberto Giacometti**

*Gizon baten bustoa marko batean (Buste d'homme dans un cadre)*,

1946 inguru

Olio-pintura mihise gainean

28,1 x 147,5 cm

Fondation Alberto et Annette Giacometti, Paris

